



Estrainekoz, Sagardo Eguna. Aurreko urteetan, sagardo dastatze saioa antolatzen zuten Jai Batzordeak. Aurten ordea, ekitaldia bera indartu eta I. Sagardo Eguna ospatuko da Zubietan. Uztailaren 27ko hitzordu horretan, Zubietan, Usurbil eta Aginagako bederatzi sagardogileren postuetatik osteratxoak egin eta etxe bakoitzeko edari preziatua dastatu ahal izango da. Hitzordua, goizeko 11:30etik aurrera jarri dute. Jai hauetakoa lehen edizioa izango da, baina urte batzuk barru nork daki ez ote den bilakatuko sagardoari lotutako erreferentziatzeko hitzorduan.



Egun bete, gaztetxoek ondo pasatzeko. Santioetan uztailaren 28a izango da. Egun osoan zehar, jolasetan parte hartzeko aukera izango dute. Baita Gorritik ekarritako animaliak ikusi eta haien inguruan ibiltzeko ere. Bertan bazkaltzeko gonbita luzatzen diete Jai Batzordekoek, otordua etxetik eramanda, postrea antolatzailerik jarriko baitute. Iragartzen dutenez, ez da sorpresarik faltako. Egunari amaiera emateko, askaritarako txokolata gozoa edan eta bildutako energia erretzeko buruhandien aurretik korrika saio ederrak egingo ditubatek baino gehiagok.



Gustu guztiak asetzeko musika. Oso joera desberdinetako musika taldeak bilduko dira Zubietako pilotalekuan. Laiotz, Trikizio eta Triki Ta Ke batetik eta bestetik, belaunaldi desberdinetako trikitilariak; Irma eta Oroitz gazteak, eta Ansorregi eta Larrañaga beteranoak. DJ-ak izango dira hilaren 26ko gaueko protagonistak eta Etsaiak San Inazio bezperakoan. Musika eskaintza osatzeko gertuko taldeen emanaldiak ere ez dira faltako; Mendeku Itxua, Despervicio eta Gaueko Itzalak hain zuzen. Zaletu guztiak gustura uzteko moduko kontzertuak izango dira aurtengo jaietan.



Zubietarren parte hartzea, ardatz. Egitaraua eskutan hartuta, zubietarrek antolatu eta zubietarrek egindako festak direla aipatu behar da. Garbi geratuko da aurten ere soka-dantza saioan. Baina baita hiru urteko etenaldiaren ostean berreskuratu nahi duten ohiturarekin ere. Antzezlan berri bat plazaratuko baitute. Zubietarren parte hartzearen beste adibide bat, hilaren 26an ospatuko den oilasko biltzaileen eguna izan daiteke. Hala ere, zubietarrentzat soilik ez, bertaratzen diren guztiei zuzendutako jaiak dira Santioak. Jai Batzordekoek festetara hurbiltzeko gonbita luzatzen dute.